

Etxebarria Toribio il zaigu

Euzko Gaztedi, 1968-06: 5.

Ez da ba asko Andima Ibiñagabeitia ta biok don Toribio bixitatzera joan giñala; emipleji batek jo ta moteldua zegoan. Ordu ezkeru, Andima laguna (irurogei urte gazte) il zaigu, ta orain don Toribio (larogei urte beteak); biak ziran euskera-jakintsuak, eta biak gizon on-onak.

Andima zanarekin don Toribio ikustera joan nintzanean eskabide bat egin nion: ia, ba, gure alkar-izketa bat grabatzeko baimena emango ziran. Gaia Euskalherria zan. Don Toribio ez zan iñorreri ezer ukatzeko gizona; ala, urrungo igande arratsaldean bere etxera bidean abiatu baño lenago Andima'ri deitu nion; bañan Andima ez zan ondo sentitzen (amabost egun barru betiko oeratuko zuan biotzeko gaitz arek oso moteldua zeukan) eta bakarrik jaon nintzan.

Don Toribio zai-zai zegoan, bizi guzian bere egin-bearrak betetzeko egon zan bezala.

Ala, grabatzen aritu giñan puska luze batean; ordu bete pasiak bai. Bera jota zeukan emiplejiak itza pixka bat motelduta utzi zion; eta, gañera, berak zionez, ez zuan don Toribio'k, berez, itz egiteko errestasun aundirik izan; euskeldun geienak bezela, diot nik. Bañan nere galderi ondo erantzun zien; bere gogoia erne, argi, zuti-zutik baizeukan.

Egunen batean argitaratuko det alkar-izketa au, ta alkar-izketa onekin bie, don Toribio'ri ta neri, gertatu zitzaiguna.

Bukatu genduan, ba, grabatzeko alkar-izketa ori, ta gero, puska luze batean izketan geratu giñan. Beste askori galdetzera ausartuko ez nintzaken gauzak galdetzeko libre sentitzen nintzan gizon onekin, ain baizan gizon argia, zabala, ta gañera umilla; ta ain agiria baizan gizon onen barru-barruko pakea. Alaxe, egin nion galdera lotsagabe au:

"Don Toribio: iltzeko bildurrik ba al daukazu?"

Berak ba zekian nik zer nion. Don Toribio'k ba zekian nik eliza-gabekoa bezela jotzen nuala, ta don Toribio'k ba zekian berak eskeñitako bere zeru-gogo ta zeru-egarriko liburu ederra irakurri niela; nik orduan botatako tiro au artu zuan gizonak ba zekian bere kezken berri ba nuala. Bai, aurrean, eta ain makal, naukan larogei urte betetzeko gizon onek ba zekian nere galderak nolako korapilloak (gogo oneko korapilloak, noski) zemazkin. Aingeru baten begiatu garbiarekin begira-begia geratu zitzaidan; eta erantzun ziran: "Ez, ez daukat iltzeko bildurrik; nik egin bear nituanak egin ditut, eta ez daukat ezeren damurik; beste egitekorik ere ez daukat; zertarako bizi bear det geiago?... Emendik aurrerakoak propiñak dira, Martin, propiñak; eta, egitan, ez ditut biar. Oraindik idatzi nezake, bañan idatzi bear nituanak ere idatzi ditut. datorrela eriotza, ni zai nago".

Egunero mezetara joaten diran makiña batek ori esan naikoluteke!

Ta ez zion ori gizona naigabez zegoalako, bai zera; ta ezta aldamenen (bere emazte maite-maitea galdu ta gero) bere alaben maitasuna palta zitzaiolako ere; bañan bere

eginbearra bete zuan, Kristo'k gurutzean bezala, ta bere neurria bete ta gero bere gogora betiko joan zai zegoan, lasai asko.

Il zala jakin nuanean joan nintzan azken-agurra egitera; an zegoan, bere arpegi argi artan gaixtakeri edo maltzurkeri edo gorroto zimur bat gabe, pake-pakean, betiko lo. Bere aldamenean, gurutze bat eta bere alabak (beste makiña bat lagun ere bai, noski). Galdetu nien, ia nola itzali zan. Berak, eta jaungoikoak, nai bezela noski: "Ni ba noa -esan omen zien alabei- Mexico'n argitaratzen ari zaizkieten nere liburuan, alako orritan, orrelako akatz bat dago; ta bear dana ordaintzeko oraindik orrenbesteko bat bialdu bear da; oiek egin itzazute".

Eta alaxe, geratzen zitzaizkion bi egin-bear oiek bete ta gero, keja bat gabe, joan zan.

Ni ez noa emen gizon onek egin dituan lanak aipatzera; asko dira, ta luze joango litzaidake. Bere errian ba ditu ori ongi asko egingo duten gizonak. Nik bere atzerriko azken-asmu oiek ekarri izan nai ditut orain, galdu ez ditezen.

Don Toribio betiko sozialista zan, burrua aundi aietan egindako sozialista; gizon zuzena; langillea, ta langileen laguna; euskelduna, ta euskeraren laguna; elizatik kanpora bizi zana, bai, bañan kristau ona, Jaungoikozale eta Jaungoiko-billatzalle langillea; gizon jakintsua, don Toribio, ta pala; ta atzerrian il zaigu, zoritxarrez, beste euskotar askoren antzera.

Il aurretik bere alabei oraindik esan omen zien:

"Lur guziak dira onak iltzeko, alaba, danak".

Ontan ere ez zaukan don Toribio'k iñontzako gorrotorik. Ikasi bezate gorrotoaren iturriak ikusi ta ikaratu ez diranak, eta iturri oiek ixteko aukera izan eta ixten alegin guzian zaiatzen ez diranak.

Goian bego, don Toribio.